

## 2024eko abenduaren 18ko prentsaurrekoa

### **Aldaketa bat Ahetzerentzat**

Jaun-andereak,

milesker gaurko prentsaurrekora hurbildurik. Gaurkoa urrats garrantzitsu bat da guretzat, **AHETZEN** zerrendakoentzat, urtarrilaren 5ean iraganen diren herriko eta elkargoko hauteskunderi begira eta balizko urtarrilaren 12ko bigarren itzuliari begira.

Aheztarrek beren funtsezko eskubide demokratikoa gauzatzeko parada izanen dute, herriko kontseilu berri bat eta elkargoko kontseilari berri baten hautatzeko, urte bateko kargu batentzat.

Hauteskunde aitzinatu hauek zenbat hilabeteren edo zenbat urtetako, herriko kontseiluko gehiengoaren baitan, krisialdi eta disfuntzio instituzionalen emaitzak dira. 2011, 2014 eta 2020az geroztik gehiengo astindu dituen haustura sakonak eta herriko kontseiluko hautetsien herenen kargu uzteak, Prefetak deitutako hauteskunde aitzinatuak probokatu dituzte. **Itzulera hori funtsezkoa zen aheztarrei oinarrizko eskubide demokratiko baten emaitzeko: herri hau egonkortasunez eta interes orokorrez kudeatzeko gai izanen den talde baten hautatzeko eskubidea. Betidanik defendatu izan duguna.**

Azken hilabeteetako gertakariak ez dira maleroski isolatuak. Lehen gogoratzen genuen bezala, duela hamar urte baino gehiago hasitako lerratze politiko batean kokatzen dira, protagonista berberak, barne borroka berberak, epe luzerako ikusmen faltak eta gure biztanleen benetako kezketatik urruntzeak markaturik.

**Bizi izan duguna ziklo politiko baten amaiera da. Gaur, orrialdea itzultzeko eta gure herriarentzat kapitulu berri baten irekitzeko garaia da.**

**Zuen aitzinean lan egiteko prest den talde bat !**

### **Oroitze historikoa:**

Hitz gutxitan **AHETZEN** taldearen historia aipatu nahi genuke.

Ahetzen taldeak 2011 urtean bere lehen hautagaitza aurkeztu zuen, herriko hauteskunde partzialetan. Gure taldeak, bigarren itzulian, lehen postua lortu zuen boz kopuruekin zerrenda osoa bozkatua izan zelarik, eta horren ondotik herriko kontseiluan lehen hautetsi bat izaitea lortu genuen (Panachage delako horri esker).

2014 urtean, 19 pertsonako zerrenda oso bat aurkeztu genuen, eta herriko kontseiluan 3 hautetsi sartu ziren, bigarren itzulian aheztarren konfiantzazko bozken % 45a inguru lortuz.

2020an, Aheztarren konfiantzazko bozken % 37a baino gehiago lortu genuen, 326 bozkekin eta hor berriz 3 hautetsi herriko kontseiluan sartu ziren.

Erroak herri huntan ongi finkatuak ditugu. Ezker abertzale zerrenda kartsuki defenditzen dugu.

Lan talde baten fruitu gira, konpetentzi desberdin eta osagarri dituzten emazte eta gizonen elkartzan dituenak. 42 urteko adin batz besterekin, dinamismoan eta esperientzian orekatzen gara.

Batzuk, aspalditik herriko elkarteko kide gira, bertzeak hautetsi ohiak, denak Aheztarren alde, aspalditik engaiatuak.

Gure taldearen heldutasunak, konpetentziak eta harremanak lasaitzeko gogoak, Aheztarren konfiantza berpizteko eragin baikorra izanen duela badakigu, izan eguneroko bizian edo herriko langileen kudeaketan.

Hainbat urtez oposizioan lan eginik, gure herriaren beharrak aztertzen baita Aheztarren xedeak aurreikusten jakin dugu.

2025 eko premiazko ardatz batzuen inguruan, proiektu koherente hau eraiki dugu :

1. **Etorkizuneko eskolatzeko prestatu** : 2025/26 ikasurtea gaurdanik antolatu, ikasle guzientzat baldintza onak segurtatuz. Gure lehen ardura haurrei buruz doa, eskola bakoitzaren beharrak antzizipatu, erakaskuntzako partaideekin lanean arituko gira.
2. **Herriko langileekin konfiantzazko harremanak berpiztu** : hautetsien eta langileen arteko harremanak konfiantza eta errespetu baloretan oinarrituko dira. Herriaren funtzionamendua segurtatzeko, elgarrizketa emankor eta leiala segurtatuz, giro sana sortu nahi dugu.
3. **Herriko bideen antolaketa** : herriko bideek arreta berezia merezi dute. Urtez urteko mantentze eta berritze plana proposatuko dugu, guzien seguritatearentzat.
4. **Herriko finantzak** : kargua hartzean, gaur egungo finantzen egoera zehaztuko dugu. Gisa hortan, 2025eko buxeta errealista eta egingarria presentatuko dugu, beharrezko inbestizamenduak lehenetsiz eta diru kudeaketa arduratsua segurtatuz.
5. **Garai politiko berri bat proposatu** : orain arteko egin moldeak baztertuz, kudeaketa garden eta inklusiboa nahi dugu, errespetu baloretan bermatuz.
6. **Egonkortasun instituzionala** : gure lehentasuna da. Harmoniazko kudeaketa eraginkorra segurtatzeko, gure herrian, baita herri elkargoan ere.

Ondoko urteeri begira :

**Helburu argiak herriarentzat :**

- Euskara sustengatu eta euskaldun nortasuna sustatu.
- Ekintza zehatzen bidez, transizio ekologikoa emendatu.
- Etxebizitza eskuragarri beharrei erantzun, Ahetze, beti ere herria egon dadin zainduz.
- Harremanak eta elgar bizitza azkartu.

**Aurreikuspena, gure indarra :**

Gaur aipatzen ditugun ideiak ez dira berriak. Deia 2011n, azaltzen genituen arazoak gaur, oraino, hor dira. Utopistak ginela zioten, errealitatea aldiz hor da : aintzindari ginen eta gisa

berean aintzindari izanen gira Ahetzek biharko desafioak altxa ditzan.

Gure ideia nagusiak, “herrixka bat izaten segitu”, ederki ilustratzen du aurreikusteko gaitasun hori. Ideia hori defendatzen lehenak izan giren arren, orain gure aurkariak berentzat hartzen dutela ikusten dugu. Horrek erakusten du, beste behin ere, badakigula funtsezko erronkak identifikatzen eta sustatzen, guztiontzat agerikoak bihurtu baino lehen. Gure nortasunaren eta baloreen errespetuan oinarritutako ikuspegi honek gure ekintza gidatzen segitzen du.

Aurrea hartzeko gaitasun hori, berritzeko dugun borondate etengabearekin batera, gure herria nahi dugun lekura eramateko gakoa da: bizi-leku iraunkorra, solidarioa eta bere nortasunari leiala.

### **Herriko etxe eta elkargorako bikote bi**

Ahetzeren interesak ahalik eta hoberen eramateko asmoz, gure taldea egituratzea aukeratu dugu, herriko etxearentzat bikote baten eta elkargorako bertze bikote baten inguruan. Antolaketa berri eta bertutetsu honek aukera ematen du tokiko eta herriarteko erronkei modu pragmatikoan erantzuteko eta gure herrikideen eskura egoteko.

- **Herriko etxearentzat**, gure bikotea hurbilasunez, egonkortasunez eta deliberamenduz egina da, gai arruntak kudeatzeko eta funtsezko eraldaketak aurrera eramateko.
- **Elkargorako**, gure bikoteak Ahetzeren interesen ordezkari indartsu eta eraginkorra bermatuko du instantzia erabakigarri honetan, gure lurralderako proiektu egituratzaile asko erabakitzen dituen bere eskumen ugariengatik.

Estrategia hau ekintza publiko partekatu eta koordinatuaren ikuspegi oinarritzen da, gure herriko biztanleen itxaropenei erantzun ezin hobea bermatuz.

### **Elkarrekin orri berri bat idatz dezagun**

Jaun-andreok, gure anbizioa argia da: gure herriko etxeari etorkizun hobea eskaintzea, konfiantzan, egonkortasunean eta Aheztarren beharizanetara zuzenduriko kudeaketa sendoan oinarritua. Prest gaude gure ardurak hartzeko eta Ahetze determinazioz eta gardentasunez zuzentzeko.

Iraganarekin hautsi eta ziklo politiko berri bat hasteko aukera paregabea dira hauteskunde hauek. Biztanleei gudan konfiantza izatera deitzen diegu, eta gure herriaren historiaren orrialde berri bat gurekin idaztera.

### **Dinamika demokratiko berri bat**

Gure zerrenda tokiko demokrazia berritu baten bermatzailea da, gardentasuna, kontzertazioa eta interes kolektiboa bere ekintzaren erdigunean ezarri.

**Dei egiten diegu Aheztar guztiei hauteskunde aitzinatu eta berri hauetan mobiliza daitezen.** Elkarrekin, egin dezagun gure herriarentzako etorkizun lasai eta handinahiaren hautua. Laster atez ate ibiliko gira, gure programa Aheztarrei aurkezteko.

**Besta egun hauetan, ez ahantzi ahalordeak! !**

**Zerrendaren aurkezpena**



## Conférence de presse du mercredi 18 décembre 2024

### Un tournant pour Ahetze

Mesdames et Messieurs,

Nous vous remercions pour votre présence aujourd'hui. Cette conférence de presse est une étape importante pour nous, membres de la liste **AHETZEN**, dans le cadre des élections municipales et communautaires anticipées qui se tiendront les 5 janvier et éventuellement pour un second tour le 12 janvier 2025.

Les Aheztaur auront donc l'opportunité d'exercer leur droit démocratique essentiel pour élire une nouvelle équipe municipale et un nouveau conseiller communautaire à l'agglomération Pays basque pour un mandat d'un an.

Ces élections anticipées sont le fruit de plusieurs mois voire plusieurs années de crise et de dysfonctionnements institutionnels au sein de la majorité municipale de notre commune. La fracture profonde qui a secoué la majorité municipale élue depuis 2011, 2014 et 2020, associée aux démissions successives d'un tiers des élu(e)s, a amené le Préfet à décider d'un retour aux urnes. **Ce retour était essentiel pour redonner aux Aheztaur un droit démocratique fondamental : celui de choisir une équipe capable de diriger ce village dans la stabilité et l'intérêt général. Ce que nous avons toujours plaidé.**

Les événements des derniers mois ne sont malheureusement pas isolés. Comme nous le rappelions précédemment, ils s'inscrivent dans une dérive politique amorcée il y a plus de dix ans, marquée par les mêmes protagonistes, les mêmes luttes internes, une absence de vision à long terme et un éloignement des préoccupations réelles de nos habitants.

**Ce que nous avons vécu représente la fin d'un cycle politique. Aujourd'hui, il est temps de tourner la page et d'ouvrir un nouveau chapitre pour notre village.**

**Devant vous une équipe prête à agir !**

#### **Rappel historique :**

En quelques mots, nous souhaiterions revenir sur l'histoire de notre groupe, le groupe **AHETZEN**

Le groupe Ahetzen, existe depuis 2011, date de notre première candidature à des élections municipales partielles. Notre groupe est arrivé en tête au 2<sup>ème</sup> tour en étant votée liste entière en nombre de voix et nous avons obtenu un élu siégeant au conseil municipal (Panachage).

En 2014, nous avons présenté une liste entière de 19 personnes, et nous avons obtenu près de 45 % du vote de confiance des Aheztaur, au 2<sup>ème</sup> tour, en plaçant 3 élus au conseil municipal.

En 2020, nous avons obtenu plus de 37% de vote de confiance des Aheztaur avec 326 voix et installé 3 élus au conseil municipal.

Nous sommes bien ancrés dans ce village. Et c'est dans un esprit combatif et ambitieux, que nous vous présentons aujourd'hui notre liste, abertzale et de gauche.

Cette liste est le fruit d'un travail collectif, rassemblant des femmes et des hommes d'expériences variées, aux compétences solides et complémentaires. Avec une moyenne d'âge de 42 ans, elle reflète un équilibre entre dynamisme et expérience. Plusieurs de ses membres sont déjà impliqués dans le tissu associatif local, témoignant de leur engagement de longue date au service des Aheztar et également d'anciens élus, connaissant les rouages administratifs.

Nous sommes convaincus que notre équipe incarne la maturité, la compétence et l'apaisement nécessaires pour redonner confiance aux habitants d'Ahetze, tant dans la gestion quotidienne de la commune que dans ses relations avec le personnel communal.

Fort(e)s des années passées dans l'opposition, nous avons su analyser les besoins de notre village et anticiper les attentes des Aheztar. Nous avons bâti un projet cohérent, articulé autour d'axes prioritaires pour 2025 :

1. **Préparer l'avenir scolaire** : Organiser dès maintenant la rentrée scolaire 2025-2026 pour garantir à tous les élèves des conditions optimales. La jeunesse d'Ahetze mérite une attention prioritaire, et nous nous engageons à travailler avec les services concernés pour anticiper et répondre aux besoins scolaires.
2. **Restaurer la confiance avec le personnel communal** : Le lien entre les agents communaux et les élu(e)s doit être basé sur la confiance et le respect mutuel. Nous mettrons en place un dialogue constructif et transparent afin de rétablir un climat apaisé, propice à un fonctionnement efficace de la commune.
3. **Un plan pluriannuel pour les voiries** : Nos infrastructures routières nécessitent une attention particulière. Nous élaborerons un plan pluriannuel d'entretien et de rénovation des voiries communales, garantissant leur qualité et leur sécurité à long terme.
4. **Un état des lieux financier** : Dès notre prise de fonction, nous dresserons un état des lieux précis des finances de la commune. Cette démarche permettra d'élaborer un budget 2025 réaliste et ambitieux, priorisant les investissements indispensables tout en assurant une gestion responsable.
5. **Faire de la politique autrement pour un nouveau cycle politique** : Nous souhaitons rompre avec les pratiques du passé et proposer une gestion transparente, inclusive et respectueuse des valeurs de notre commune.
6. **La stabilité institutionnelle** : Une priorité absolue pour garantir une gestion efficace et harmonieuse, tant au niveau communal que communautaire.

Et à plus long terme :

#### **Une vision claire pour Ahetze :**

- Soutenir l'Euskara et promouvoir notre identité basque.
- Accélérer la transition écologique avec des actions concrètes pour la durabilité.
- Maintenir notre statut de village tout en répondant aux besoins de logement accessible.
- Renforcer le vivre-ensemble et les liens sociaux.

#### **L'anticipation comme force motrice**

Les idées que nous portons aujourd'hui ne sont pas nouvelles. Dès 2011, nous anticipions déjà les problèmes qui frappent aujourd'hui notre village. On nous qualifiait d'utopistes, mais la réalité est là : nous avons un temps d'avance. De la même manière, nous voulons aujourd'hui préparer Ahetze aux défis de demain.

Notre idée phare, celle de “**rester un village**”, illustre parfaitement cette capacité d’anticipation. Alors que nous avons été les premiers à la défendre, nous constatons qu’elle est désormais reprise par nos adversaires. Cela montre, une fois de plus, que nous savons identifier et promouvoir les enjeux essentiels avant qu’ils ne deviennent évidents pour tous. Cette vision, ancrée dans le respect de notre identité et de nos valeurs, continue de guider notre action.

Cette capacité d’anticipation, combinée à notre volonté constante de renouvellement, est la clef pour amener le village là où nous savons qu’il doit être : un lieu de vie durable, solidaire et fidèle à son identité.

### **Un duo pour la commune et l’agglomération Pays Basque**

Afin de porter au mieux les intérêts d’Ahetze, nous avons choisi de structurer notre équipe autour d’un binôme pour la mairie et d’un binôme pour l’agglomération Pays Basque. Cette organisation inédite, vertueuse, permet de répondre de manière pragmatique aux enjeux locaux et intercommunaux et d’être au plus près de nos concitoyens.

- **Pour la commune**, notre binôme incarne la stabilité, la proximité et la détermination nécessaires pour gérer les affaires courantes et engager les transformations essentielles.
- **Pour l’agglomération**, notre binôme assurera une représentation forte et efficace des intérêts d’Ahetze au sein de cette instance cruciale, qui décide de nombreux projets structurants pour notre territoire par ses nombreuses compétences.

Cette stratégie repose sur une vision de l’action publique partagée et coordonnée, garantissant une réponse optimale aux attentes des habitants de notre village.

### **Ensemble écrivons une nouvelle page**

Mesdames et Messieurs, notre ambition est claire : offrir à notre commune un avenir meilleur, basé sur la confiance, la stabilité et une gestion résolument tournée vers les besoins des Aheztar. Nous sommes prêts à prendre nos responsabilités et à diriger Ahetze avec détermination et transparence.

Ces élections sont une opportunité unique de rompre avec le passé et d’entamer un nouveau cycle politique. Nous appelons les habitants à nous faire confiance et à écrire avec nous une nouvelle page de l’histoire de notre village.

### **Une nouvelle dynamique démocratique**

Notre liste se veut le garant d’une démocratie locale renouvelée, en plaçant au cœur de son action la transparence, la concertation et l’intérêt collectif.

**Nous appelons tous les Aheztar à se mobiliser lors de ces élections anticipées et inédites.** Ensemble, faisons le choix d’un avenir apaisé et ambitieux pour notre village. Prochainement, nous réaliserons du porte à porte pour présenter notre programme aux Aheztar.

**En cette période de fête, nous rappelons de ne pas oublier les procurations !!**

**Présentation de la liste**

